

**“EAJ-PNV UDAL TALDEAK COVID 19AK SORTUTAKO KRISIAREN HASIERATIK EGIN DU ELKARLANAREN ALDEKO APUSTUA”**

- **Jeltzaleek krisi mahaia sortzeko proposamenaz gain, hainbat ekarpen egin dituzte bai mahai horretan eta baita beste foroetan ere, ulertuta, udalaren kudeaketa udal gobernuaren esku egonik ere, guztion indarrak beharrezkoak izango direla krisiari aurre egiteko.**
- **Martxoko udal batza telematikoa neurri ekonomikoak proposatu zituen EAJk eta geroztik krisi mahaian proposamena horiek eta beste batzuk landu dituzte politiko eta teknikoek elkarlanean. Kulturaren inguruko proposamenak egiteko eragileekin foro bat ere eskatu zuten jeltzaleek eta proposamen zehatzak kultura batzorde buruari helarazi zizkieten.**

Krisi mahaia momentuz bertan behera gelditu den honetan, EAJ-PNV udal taldeak krisi hasi zenetik egindako lanketaren inguruko balorazioa egin du. “Krisia ez da bukatu eta mahaia berriz ere aktibatzeak aukera hor dago, guk behintzat elkarlanerako borondate horri eusten diogu” azaldu du Ainhoa Galdos bozeramaile jeltzaleak. EAJk azaldu duenez, COVID 19ak sortutako krisiaren aurrean erantzukizunez eta jarrera proaktiboarekin jardun du udal taldeak, hasieratik egin baitu elkarlanaren aldeko apustua eta gobernuan ez dagoen udal talde bezala, bere esku zegoena egin du Oñati eta oñatiarren alde. “Udal gobernuak du kudeaketaren ardura eta berak ditu neurriak teknikariekin gauzatzeko baliabideak” azaldu du Ainhoa Galdosek, “hala ere argi izan dugu hasieratik ezin genuela kritikara mugatu eta soluzioaren parte aktibo izan nahi genuela eta horretara bideratu ditugu gure indarrak”. Jeltzaleek martxotik orain arte egindako ibilbidea laburbildu dute.

Martxoaren 26an, konfinamendu garaian, egin zen lehen osoko bilkura telematikoa eta bertan 2019ko aurrekontuaren likidazioa izan zen gai nagusia. Bertan azaldu zuten jeltzaleek, zorpetze maila aintzat hartuta, krisiari aurre egiteko egoerarik egokienean ez zegoela udala eta zehurtiaz eta elkarlanean aritzea beharrezkoa izango zela. Osoko bilkuran, konprometituta ez zeuden gerakineko 2 milioi inguru zertara bideratu onartu zen eta zetorren krisia aintzat hartuta, EAJ udal taldeak aurkako bozka eman zuen, ulertuta gerakina zertara bideratu erabakitzeak momentua ez zela. Osoko bilkura ekarpenak egiteko ere erabili zuen Jon Kepa Gerrikagoitia zinegotzi jeltzaleak, bertan jarri zituen mahai gainean bai hainbat hobari eta baita kontsumoa sustatzeko bonoak ere. Osoko bilkura hartan bertan aipatu zuten jeltzaleek bertan kontsumitzeko kontzientziarioa kanpaina baten beharra.

Proposamen horiek eta beste batzuk elkarlanean lantzeko, krisi mahaia sortzeko eskaera egin zuten eta bertan aritu dira udal gobernuarekin eta teknikariekin elkarlanean. Dirulaguntza pack baten beharra era mahai gaineratu zuten jeltzaleek eta teknikoki eta politikoki egindako lanketaren fruitu izan dira azken osoko bilkuran onartutako neurriak. EAJk kultur eragileekin kultur arloko proposamenak egiteko foro bat sortzeko eskaera ere egin zuen, bertan lantzeko arlo honetan zituzten ekarpenak eta udal gobernuak foro horren sorrerari ezezkoa eman bazion ere, jeltzaleek kulturaren inguruko beren ekarpenak kultura batzorde buruari helarazi zizkieten udal gobernuaren aldetik kulturaren inguruko neurrien berririk jaso aurretik. Proposamen horiek herriko taldeen kultura sormena sustatzea, kontratatuta eta bertan behera gelditu ziren ikuskizunei eustea eta jai eta jaialdiei, beste era batera bazen ere, eustea zuten helburu.

Apirilaren 3an eratu zen jeltzaleek eskatutako krisi mahaia eta bertan beste herri batzuetako ereduak mahai gainean jartzeaz gain, osoko bilkuran egindako ekarpenak ere landu ziren, tartean, EAJk proposatutako bonoak. Caritasek izan zezakeen eskatzaileen kopuruak gora egingo zuela aurreikusita udaletik laguntza bideratzea ere proposatu zuen EAJk. Astez aste bildu den mahaian EAJk ekarpenak egin eta neurrien lanketan parte hartu du eta mahai horretan lehenik eta udalean ondoren teknikoki landu dira azken osoko bilkuran hartutako neurriak eta baita beste hainbat, esaterako, komunikazio eta kontzientziario kanpaina.

“Gure esku zegoen guztia egin dugu, hori delako herri ordezkari garen heinean gure erantzukizuna. Inork ezin du zalantzan jarri propositiboak eta proaktiboak izan garela eta ez garela kritikatzera mugatu” dio Galdosek, “baina gu ez gaude gobernuan eta neurriak gauzatzea udal gobernuari dagokio, beraiek dutelako ardura hori eta baita horretarako baliabide teknikoak ere” amaitu du Galdosek.

## "EL GRUPO MUNICIPAL EAJ-PNV HA APOSTADO POR LA COLABORACIÓN DESDE EL INICIO DE LA CRISIS GENERADA POR EL COVID 19"

- Además de la propuesta de crear una mesa de crisis, los jeltzales han hecho aportaciones tanto en esa mesa como en otros foros, entendiéndose que, aun estando la gestión municipal en manos del gobierno municipal, las fuerzas de todos serán necesarias para hacer frente a la crisis.
- EAJ-PNV planteó medidas económicas en el pleno telemático de marzo y desde entonces en la mesa de crisis se ha trabajado conjuntamente con políticos y técnicos en estas y otras propuestas. Los jeltzales también pidieron un foro con los agentes culturales para realizar propuestas sobre cultura, propuestas que trasladaron al presidente de la comisión de cultura.

Tras la suspensión, de momento, de la mesa de crisis, el grupo municipal EAJ-PNV ha realizado una valoración del trabajo realizado desde el inicio de la crisis de la COVID 19. "La crisis no ha terminado y la posibilidad de reactivar la mesa sigue vigente, nosotros al menos seguimos manteniendo esa voluntad de colaboración" ha explicado la portavoz jeltzale Ainhoa Galdos. EAJ-PNV ha explicado que su grupo municipal ha actuado con responsabilidad y actitud proactiva ante la crisis generada por la COVID 19, ya que desde el principio ha apostado por la colaboración y como grupo municipal de la oposición, ha hecho lo que estaba en sus manos por Oñati y los y las oñatiarras. "El gobierno municipal es el responsable de la gestión y el que tiene los medios para ejecutar las medidas junto al personal técnico", ha explicado Ainhoa Galdos, quien ha añadido que "desde el principio hemos tenido claro que no podíamos limitarnos a la crítica y que queríamos ser parte activa de la solución y hemos dedicado nuestras fuerzas a ello". Los jeltzales han resumido su trayectoria desde marzo hasta ahora.

El 26 de marzo, durante el confinamiento, se celebró el primer pleno telemático en el que el tema principal fue la liquidación del presupuesto de 2019. En el mismo, los jeltzales explicaron que, dado su nivel de endeudamiento, el Ayuntamiento no estaba en la situación más adecuada para hacer frente a la crisis y que sería necesario actuar con prudencia y colaboración. En el pleno, teniendo en cuenta la crisis que venía, el grupo municipal EAJ-PNV votó en contra de incorporar alrededor de dos millones no comprometidos del remanente, entendiéndose que no era el momento de decidir a qué destinarlo. El concejal jeltzale Jon Kepa Gerrikagoitia realizó en el pleno propuestas de medidas a tomar para hacer frente a la crisis poniendo sobre la mesa una serie de bonificaciones, así como bonos para fomentar el consumo. En ese mismo pleno, la formación jeltzale aludió a la necesidad de una campaña de concienciación para incentivar el consumo local.

Para trabajar conjuntamente estas y otras propuestas, los jeltzales solicitaron la creación de una mesa de crisis en la que han colaborado con el gobierno municipal y los técnicos. Las medidas aprobadas en el último pleno han sido fruto de dicha labor técnica y política. EAJ-PNV también solicitó la creación de un foro con los agentes culturales, en el que se trabajaran propuestas en torno a la cultura y, aunque el gobierno municipal rechazó su creación, los jeltzales trasladaron sus aportaciones sobre cultura al presidente de la comisión de cultura antes de recibir información sobre medidas culturales por parte del gobierno municipal. Estas propuestas tenían como objetivo fomentar la creación cultural de los grupos locales, mantener los espectáculos que fueron contratados y suspendidos y mantener las fiestas y festivales adaptándolas a la situación actual.

El 3 de abril se constituyó la mesa de crisis solicitada por los jeltzales, en la que además de poner sobre la mesa modelos de otras localidades, se trataron las aportaciones realizadas en el pleno, entre ellas, los bonos propuestos por EAJ-PNV. Los jeltzales también plantearon que, ante la posibilidad de que el número de solicitantes de Cáritas aumentara, se pudiera colaborar desde el Ayuntamiento. En la mesa, reunida semana tras semana, EAJ-PNV ha realizado aportaciones y ha participado en la elaboración de

medidas, que se han trabajado técnicamente, tanto las medidas aprobadas en el último pleno como otras como la campaña de comunicación y concienciación para impulsar el consumo local.

"Hemos hecho todo lo que estaba en nuestras manos porque esa es nuestra responsabilidad como representantes municipales" ha afirmado Galdos. "Nadie puede dudar de que hemos sido propositivos y proactivos y que no nos hemos limitado a criticar, pero nosotros no estamos en el gobierno y la ejecución de las medidas corresponde al gobierno municipal, porque ellos tienen esa responsabilidad y también los medios técnicos para ello", ha concluido.